

Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea

Ospitaleratutako pertsonentzako eta laguntzaileentzako harrera gida



 **Osakidetza**

URIBEKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
URIBE



Kerik gabeko erakunde sanitarioen Euskal Sarea

Red Vasca de organizaciones sanitarias libres de humo



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Aurkezpena

Ongietorria egiten dizugu eta behar bezalako egonaldia opa dizugu ospitalean.

Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea Osakidetzaren erakunde sanitarioa da, Uribeko ESlaren baitakoa.

Herritarren Osasuna hobetzeko lan egiten dugu, eta balio hauetan oinarritzen gara: profesionaltasuna, berrikuntza, talde-lana eta gure gizartearekiko konpromisoa.

Gure helburua da zuk ahalik eta tratamendurik eta zaintzarik onenak jasotzea.

Gida honek ospitalean zauden bitartean zuretzat eta zure senideentzat baliagarria izango den informazioa jasotzen du.



Ospitalizazioa

Ospitalizazio-solairura heltzen zarenean, erizaintzako taldeak egingo dizu harrera; erizaintzako profesionalak zure egoeraren hasierako balorazioa egingo dute eta informazioa emango dizute: funtzionamendua, ordutegiak, arauak eta abar.

Laguntzeko gaude hemen, zalantzarik baduzu galdetu langileei.

Zenbait aholku baliagarri:

- Ekar itzazu zure garbitasunerako oinarrizko tresnak, hala nola lo egiteko arropa eta txapinak.
- Protesiren bat eramanez gero (hortzak, audifonoak...), erabili berariazko edukiontziak protesiak gordetzeko. Horrelakorik ez badaukazu, eskatu langileei. Gainera, gomendatzen dugu ez uztea mahaitxoan edo oheko arropan, ustekabeko erorikoaren ondorioz galdu edo hautsi ez daitezten. Ospitaleak EZ du bere gain hartzen hura galtzea edo hondatzea.
- Gorde zure gauza guztiak armairuan eta eduki itxita.
- Gelan **baliozko objekturik ez izatea gomendatzen da**. Bestela gordeta izan itzazu. Ospitaleak EZ du erantzukizunik hartzen galduz gero.

OHAR GARRANTZITSUA:

Zure egonaldian, solairuan egon behar duzu, eta ez duzu utzi behar baimenik gabe.

Arau orokorra: Ezin izango zara irten ospitaleratuta zauden unitatetik; bai, ordea, korridoretik eta unitatearen beraren gunetik paseatu.

Salbuespenezko egoerak: Unitatetik irten ahal izango zara, erizaintzako langileek baloratu ondoren eta mediku arduradunaren baimenarekin. Beti konpainian irten beharko duzu.



Medikua

Erizaina

Erizaintzako
Zaintza
Osagarrietako
Teknikaria

Osasun arloko
Teknikaria

Fisioterapeuta

Zeladorea

Garbitzailea

Pazienteen Segurtasuna

Gure konpromisoa da ahal dugun guztia egitea ahalik eta zainketa onenak eskaintzeko, une oro zure segurtasuna zainduz. Horregatik guztiagatik:



Identifikazio-eskumuturrekoa: Ospitaleratzean, identifikazio-eskumuturreko bat jarriko dizute zure datu pertsonalekin. Egiaztatu arreta ematen dizuten langileek eskumuturreko hori egiaztatzen dutela edozein prozedura, proba edo medikazio egin aurretik. Alta eman ondoren, eta ospitaletik irten ondoren, kendu.



Alergiak: Alergiarik, intolerantziarik edo albo-ondoriorik izanez gero, jakinarazi unitateko osasun-langileei.



Eskuen higieena: Eskuen higieena da ospitaleetako infekzioak prebenitzeko eta kontrolatzeko prozedurarik garrantzitsuena eta eraginkorrena. Arreta ematen dizun edozein profesionalak egin behar duen bezala, ziurtatu zuk eta zure laguntzaileek eskuak garbitzen dituzuela edo alkohol-soluzioa erabiltzen duzuela zainketen aurretik eta ondoren. Gela guztietan dago eskuragarri.



Medikazioa: Langileei hartzen ari zaren medikamentu guztien berri eman, kontsulta pribatuetan errezetatutakoak, belar-sendagaiak, bitaminak, etab. barne. Jakinarazi langileei alkohola edaten duzun edo tabakoa edo beste substantzia batzuk hartzen dituzun. Ahal bada, ekarri tratamendu-orri aktiboa.



Mugikortasuna:

Erorikoak saihesteko, mugitu gelatik modu seguruan.

- Identifikatuta izan ezazu txirrinaren eta argiaren kokapena.
- Jaiki baino lehen, egon zaitetz minutu batzuetan ohearen ertzean, eta ez zaitetz inoiz jaiki laguntzarik edo gainbegiratzetik gabe, ahul edo zorabiatuta bazaude.
- Erabili zola irristagaitza duten zapatila itxiak.
- Eduki gela txukun eta objekturik gabe.
- Unitatetik kanpo egongo bazara, abisatu unitateko langileei, tratamendu edo probaren bat egiteko abisua jaso baitezakezu.

Informazio Medikoa

Mediku-talde aurduradunak zure eboluzioaren gaineko informazioa emango dizu erregulartasunez. Galdetu jakin nahi duzun guztia.

Mediku-taldeak bisita egingo dizu egunero, **astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:00etara**.

Nahi baduzu, **zure zuzeneko senitartekoei eta/edo zuk egunero izendatzen duzun pertsonari informazioa jakinaraziko zaie, astelehenetik ostiralera**, artatzen zaituzten unitate berean.

Erizaintzako Zaintzak

Erizainek eguneko 24 orduetan artatuko zaituzte.

Lan-txanda bakoitzean erizain bat eta/edo EZOT (Erizaintzako Zaintza Osagarrietako Teknikaria) bat izango da zure zaintzaren arduraduna.

Ezer behar izanez gero, sakatu oheburuan dagoen **txirrina**. Mesedez, ez erabili txirrina beharrezkoa ez bada, horrek beste pazienteei eskaini beharreko zaintzan eragin baitezakete.

Elikadura

OTORDUAK	GUTXI GORABEHERAKO ORDUTEGIA
GOSARIA	9:00
BAZKARIA	13:00
ASKARIA	16:45
AFARIA	20:00

Dieta zure tratamenduaren parte da, eta medikuak emango dizu egokiena.

Kontsultatu osasun-langileei adierazitako dietatik kanpo elikagaiak edo edariak kontsumitu nahi izanez gero.

Bisitak

Baimena ematen da paziente bakoitzarekin egunean 24 orduz pertsona bat sartzeko eta egoteko.

Bisitetan, paziente bakoitzeko **2 pertsona** egon daitezke (gainerako pazienteen atsedena eta egonaldia errespetatzeko).

Bisita-ordutegia: egunero **16:00etatik 20:00etara**.

Ospitalea itxita egongo da **23:00etatik 07:00etara**.

23:00etatik 07:00etara, ospitalera sartzeko eta ospitaletik irteteko, **Larrialdi Zerbitzua erabiliko da**.

"Laguntzailea" eta "bisitaria" bereiztea komeni dela uste dugu, jarduera desberdinak argitzeko:

LAGUNTZAILEA: Ekintza hauetako batzuk edo guztiak egiten dituen senidea, zaintzailea edo hurbilekoa: laguntzen du, euskarri emozionala ematen du, zaintzen laguntzen du, ospitaleratutako pertsonarekin parte hartzen du (edo ordezkapen bidez ordezkutzen du) zainketen plangintzan eta erabaki medikoak hartzean.

BISITARIA: Ospitaleratuta dagoen pertsona bat bisitatzera joan eta laguntzaile gisa jarduten ez duena.



Ospitaleko Alta

Zure mediku-taldeak erabakiko du ospitaleko alta noiz eman.

Mediku-taldea alta behar den denboraz jakinarazten saiatuko da, beharrezko prestaketak egin ahal ditzazun.

Altak 12:00etatik aurrera izango dira, bisita medikoa egin ondoren.

Alta ematean, **alta medikoaren eta erizaintzako zainketen jarraipenaren txosten bat emango zaizu**, hurrengo egunetan jarraitu beharreko jarraibideekin, bai eta etorkizunean egin beharreko hitzordu eta probak ere, halakorik balego.

Gomendagarria da **laguntzaile bat** egotea ospitaletik irteten zaren unean, zure objektu pertsonalak jasotzeko eta dagozkion gomendioak jasotzeko.

Gainerako pazienteen mesedetan, irten gelatik lehenbailehen alta jaso ondoren.

Irizpide medikoaren aurka ospitalea uztea erabakiz gero, **"borondatezko alta"** dokumentu bat sinatu beharko duzu.

Idazkaritza

Solairuan idazkaritza zerbitzua dago, eta agiri administratiboak edo ziurtagiriak eska daitezke, hala nola enpresaren egiaztagiria, **09:00etatik 15:00etara**.

Euskara

Uribeko ESLak osasun arreta ematen dien herritarren %40 baino gehiago euskaldunak dira.

Bestalde, Ospitaleko profesional asko euskaldunak dira, hori dela-eta animatu nahi zaitugu zure lehentasunezko hizkuntzan hitz egiten hastera. Ikur honen bidez, euskaraz artatu ahal zaituzten ospitaleko langileak identifika ditzakezu.

Gogorarazi nahi dizugu Osakidetzaren jakinarazpenak euskaraz jaso nahi badituzu (gutunak, mezuak...), zure lehentasunezko hizkuntza Harreran erregistratu ahal duzula.



Informazio Interesgarria

Onarpen Zerbitzua: Sarrera nagusian. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 07:30etik 20:30era. Larunbat, igande eta jaiegunetan, 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara.

Harremanetarako telefono-zk.: 946134800.

Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua (PEAZ): Astelenehetik ostiralera, 08:45etik 14:30era.

Telefono- eta telebista-zerbitzua: Gelatik dei dezakezu telebista-txartela erabilia. Gainera, kanpotik zuzenean dei daiteke gelara.

Osakidetzako WIFI konexioa: Sarbidea BISITARI sarearen bidez egin eta erregistratu zaitezke, mugikorraren zenbakia eta NANA sartuta.

Pazienteen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak: Osakidetzak badu pazienteen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen agiria. Agiri hori Onarpen Zerbitzuan duzu baita www.osakidetzak.euskadi.eus webgunean ere.

Mesedez, laguniez agurtu pazienteen erosotasuna eta lasaitasuna lortzen:



- Uribeko ESIa **“Kerik Gabeko Erakundeen Euskal Sareko”** kidea da. Horrek indartu egiten du tabakoaren kontsumoa prebenitzeko eta tabakoa erretzeari uzteko borrokan dugun konpromisoa. Horrez gain, gogoan izan indarrean dagoen lege-araudiaren arabera **debekatuta dagoela erretzea** eta/edo DSLN (nikotina aska dezaketen gailuak) eta/edo deribatuak erabiltzea **ospitale-esparruan baita aire zabaleko eremuetan ere.**



- Ahapeka hitz egin, gelako atea itxita eduki eta korridoreak libre utzi. Senitartekoentzako eta pazienteentzako itxarongela bat dago. Erabili.



- Errespetua erakutsi telefono mugikorra erabiltzean.



- Ospitaleak gizarte-erantzukizunaren alde egin du, eta gure jarduerak ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izatea nahi du. Baliabideak arduraz erabiltzea gomendatzen dizugu.